

Guztien artean

BASOA

Seguru basoren bat
ezagutzen juzula

Gogoan duzu zer izen duen? Nola eta nondik heltzen den hara? Zer dagoen bertan?

Nola definituko zenuke? Zer da basoa zuretzat? Gogora itzazu hango elementuak (zuhaitzak, zuhaixkak, landareak, animalia txikiak eta handiak, ura, usainak, hotsak, etab.). Aipa eta deskriba itzazu banan-banan.

Entzun duzu inoiz "biodibertsitate" hitza? Basoa adibide ona izan daiteke kontzeptu hori erabiltzeko. Hausnar ezazu gaiaz.

HELBURUAK

- Basoa kontzeptua definitzea eta ezagutzea, eta biodibertsitatearena aplikatzea.
- Izaki bizien eta haien ingurunearen arteko harremanen ondorioez hausnartzea.

GAITASUNAK

- Kultura zientifikoa, teknologikoa eta osasunari buruzkoa
- Ikasten ikastea
- Gizartea eta herritartasuna

ZERI DEITZEN
ZAIO

BASO?

Zuhaitzen adaburuez estalitako azalera-ehunekoa izaten da irizpidea. Baso normal batean, azalaren heren bat baino gehiago zuhaitzez estalita egoten da. Estalitako azalera % 10 eta % 30 bitartekoa baldin bada, zuhaitzia edo parkea deitzen zaio. Basoan, gutxienez 5 metro gora den landareari deitzen zaio zuhaitz.

**NOLA
SAILKA
DITZAKEGU
BASOAK ?**

Haien ezaugarriak finkatzeko irizpide batzuk aipatu behar ditugu.



Espezien ugaritasuna:
Zuhaitz guztiak espezie berekoak dira, ala mota asko dira?



Adina:
Enborren lodieratik kalkula daiteke zuhaitzen adina. Antzeko adina dute, ala desberdina?



Jatorria:
Zuhaitz primarioak (gehiago edo gutxiago basatiak) dira, ala baso sekundarioak (gizakiek landatuak)?



Hostoaren ezaugarriak:
Dakizunez, zuhaitz batzuek urte osoan atxikitzen dituzte hostoak, eta beste batzuek, ez. Bestalde, baso batzuetan hosto zabaleko zuhaitzak nagusitzen dira; beste batzuetan, orratz-itxurako hostoak dituztenak.



Funtzioa:
Basoek funtzio anitz izan ditzakete
gizartean: espezie jakin batzuk babestea, eremu minbera batzuk babestea, baso-baliabideak ekoiztea, aisiarako erabiltzea edo, are, funtzio horietako batzuen nahasketa.

Zer iritzi duzu basoak babestu beharraz?

Zein onura ekarriko dizkigu haiek zaintzeak?

Eta, horrela egin ezean, ondorio negatiboak izango dira?

Aipa itzazu:

Goazen atzera hasierara, zuk ezagutzen duzun basora. Erabil itzazu aurreko puntuetan ikasi ditugun kontzeptu guztiak, honako fitxa hau betetzeko:

AMAITZEKO

BASOAREN IZENA

Nola heltzen gara?
Non dago

Erabil itzazu aipatu ditugun irizpideak, sailkatzeko: egoera, ezaugarriak, etab.

Aipa itzazu basoan bizi diren eta bereizten dakizun izaki biziak:

Deskriba itzazu beste sentipen batzuk: usaina, hotsa, hezetasuna,...



Onurak

Ondorio negatiboak

Datu guztiak bildu ondoren, gainerako ikasleekin parteka ditzakezu. Basoaren ezaugarriak ikusten diren argazkiren bat baduzu, hobe.